METALA ELA

# NO A LOS DESPIDOS EN AUTOBAR

## ¡AQUÍ TRABAJAMOS Y AQUÍ TENEMOS QUE NEGOCIAR!

ELA METALA | FEBRERO DE 2012

# LA PLANTILLA DE LA ANTIGUA *"DEMAN"* EN HUELGA INDEFINIDA

**RECLAMAN LA READMISIÓN DE LAS PERSONAS DESPEDIDAS, Y EXIGEN QUE LAS CONDICIONES DE TRABAJO DE LA DELEGACIÓN VASCA SE NEGOCIEN AQUÍ, POR SUS REPRESENTANTES LEGÍTIMOS, Y NO EN MADRID, EN LOS SALONES DEL MINISTERIO DE TRABAJO.**

**Desde el pasado 24 de enero la plantilla de la antigua "DEMAN", empresa dedicada al "vending" (fabricación, mantenimiento y reposición de las máquinas expendedoras de café, refrescos, etc.) se ha declarado en huelga indefinida. Con su lucha, reclaman la readmisión de los 12 compañeros despedidos por medio de un Expediente de Regulación de Empleo; un ERE de extinción que fue aprobado por el Ministerio de Trabajo en Madrid, con el visto bueno de la multinacional AUTOBAR y de los sindicatos CCOO y UGT.**

El conflicto en la antigua DEMAN se remonta al mes de julio del 2011, cuando la multinacional AUTOBAR adquirió la empresa DEMAN (y el resto del Grupo Serventa). Tras la compra, la multinacional AUTOBAR (que hasta entonces era competencia directa de DEMAN) despidió por la cara a 4 compañeros (admitiendo la improcedencia de los despidos), e informó de que se disponía a reestructurar la empresa a nivel estatal, por lo que presentaría un ERE de extinción ante el Ministerio de Trabajo, que afectaría a las distintas delegaciones de AUTOBAR-Spain, incluida la delegación de la antigua DEMAN en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

### IMPONEN EL ÁMBITO ESTATAL

Desde un principio la plantilla de DEMAN en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa se mostró contraria al ERE de extinción, porque entendía que una medida de semejante calibre (un despido colectivo) no estaba justificada, y porque existían, llegado el caso, otras alternativas mucho menos traumáticas a los despidos, tales como prejubilaciones o bajas incentivadas, puesto que había voluntarios dispuestos a abandonar la empresa previa indemnización. Además, desde un principio la plantilla exigió que toda negociación de índole laboral se tenía que producir en Euskal Herria, concretamente en Urnieta, donde se encuentra su sede central, con sus representantes sindicales legítimos, como se había hecho siempre (en este sentido, conviene señalar que en la delegación de la antigua DEMAN en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa se aplica el Convenio del Metal de Gipuzkoa, completado y mejorado con su propio Pacto de Empresa).

Y sin embargo, la multinacional AUTOBAR, conocedora de que el ámbito de negociación estatal, bajo el duopolio de CCOO y UGT, es mucho más "accesible" a las demandas empresariales (en perjuicio, claro está, de los derechos de la clase trabajadora), trasladó la negociación del ERE a Madrid, despreciando así el ámbito vasco de negociación. Y como era previsible, el ERE de extinción fue aprobado por el Ministerio de Trabajo, con el visto bueno (¡firmaron el Acuerdo!) de CCOO y UGT, que se autoatribuyeron la representación sindical vasca durante la negociación del ERE, y ello a pesar de que en la delegación de la antigua DEMAN en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa no tienen representación (¡en realidad no tienen ni un sólo afiliado!)

INPOSAKETARIK EZ!!

Autobar

¡¡NO A LOS DESPIDOS!!

### ¡ESQUIROLES FUERA!

Así pues, cuando la multinacional AUTOBAR ejecutó los despidos (incluyendo a trabajador@s de edad avanzada, que han sido despedidos con indemnizaciones miserables y que van a tener realmente difícil encontrar un nuevo empleo en la coyuntura actual de crisis económica), la plantilla de la antigua DEMAN, por abrumadora mayoría, se declaró en huelga indefinida. Desde entonces, la multinacional AUTOBAR (controlada por *Capital Partners*, una empresa financiera de capital riesgo con sede en la City de Londres, pues los famosos "Mercados" a veces sí que tienen cara, y muy dura, por cierto) ha hecho todo lo posible para reventar la huelga. AUTOBAR ha coaccionado continuamente a l@s huelguistas, y ha enviado a esquiroles de otras empresas de la multinacional a reparar máquinas expendedoras y a reponer productos (sobre todo en las máquinas de café). Pero las demandas ante la Inspección Laboral, y la presión informativa que han ejercido los delegados del sindicato ELA (y también de LAB, sobre todo en Araba) en multitud de centros de trabajo de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa en los que AUTOBAR cuenta con máquinas expendedoras, han logrado pararles los pies a estos esquiroles sinvergüenzas. Es por ello que la plantilla de la antigua DEMAN se muestra muy agradecida por el apoyo recibido. Aunque, a decir verdad, no tienen nada que agradecer. Pues la solidaridad organizada es una seña de identidad de nuestro sindicato, y así va a seguir siéndolo. Gracias, en todo caso, a ellos y a ellas, a l@s huelguistas de la antigua DEMAN, por esta lección de dignidad obrera que están protagonizando.

**Por solidaridad, ni un sólo trabajador/a de Euskal Herria debiera consumir productos de AUTOBAR hasta que esta multinacional solucione el conflicto que mantiene con los/as compañeros/as de DEMAN.**

### ¡NEGOCIACIÓN YA!

Así pues, la multinacional AUTOBAR debe saber que este conflicto sólo se solucionará renunciando a la aplicación de un ERE impuesto desde Madrid, buscando alternativas a los despidos forzosos, acordando con la representación sindical vasca una salida digna para todas las personas trabajadoras de la antigua DEMAN. Porque es inadmisible, y el sindicato ELA no va a tolerarlo, que una empresa multinacional aterrice en Euskal Herria sólo para obtener rédito económico (para hacer dinero llenando nuestros centros de trabajo de máquinas expendedoras de café, refrescos, etc.); y, sin embargo, a la hora de tratar cuestiones laborales, se pase por encima, como elefante en cacharrería, nuestra realidad social y sindical diferenciada. Es decir, para ganar dinero, vienen a Euskal Herria; para despedir barato, nos llevan a Madrid. Pues no vamos a permitirlo. **Gora DEMAN-eko grebalariak!!!**

### ORGANIZARSE Y PLANTAR CARA

**Ahora que la Contrarreforma Laboral de la ultraderecha española ha hecho retroceder la Legislación a cotas del siglo XIX, la lucha ejemplar de la plantilla de DEMAN nos muestra cuál es el único camino que nos queda a la clase trabajadora para defender nuestros derechos y nuestros puestos de trabajo: organizarnos solidariamente en un sindicato honrado, y plantar cara a todas las agresiones, demostrándole al empresario de turno que si toca a uno de l@s nuestr@s, nos toca a tod@s. Ése es el único camino que nos han dejado. Eutsi gogor!!!**

METALA ELA

# AUTOBAR-en KALERATZERIK EZ

## EUSKAL NEGOZIAZIO ESPARRUA ERRESPETATU!

ELA METALA | 2012ko OTSAILA

# "DEMAN" GREBA MUGAGABEAN

**GREBA HONEKIN KALERATUAK IZAN DIREN LANGILEAK BERRIZ LANERA BUELTATZEA LORTU NAHI DUTE, ETA EUSKAL LANGILEEI ERAGITEN DIETEN LAN BALDINTZAK EUSKAL HERRIAN NEGOZIATZEA ERE EXIGITZEN DUTE**

**Pasa den urtarrilak 24-a geroztik "DEMAN" enpresa zenaren langileak greba mugagabean daude. DEMAN enpresa "vending" enpresa bat da (kafea, edari freskagarriak, etb. saltzen dituzten makinak fabrikatu, konpondu eta produktuz betetzen dituzte). Borroka honen bidez, Madrileko Lan Ministerioak (AUTOBAR multinazionalaren eta CCOO zein UGT sindikatuen oniritziarekin) onartu zuen Enplegua Araupetzeko Espedientearen ondorioz kaleratuak izan diren 12 lankideak berriz lanera bueltatzea lortu nahi dute.**

DEMAN enpresa zenaren gatazka 2011 urteko uztailean hasi zen. Orduan, AUTOBAR multinazionalak DEMAN enpresa erosi zuen (Serventa Talde osoa erosi baitzuen). Berehala, erosketa gauzatu bezain pronto, AUTOBAR multinazionalak DEMAN-eko 4 langile kaleratu zituen, harrokeria handiz, inolako argudiorik eman gabe. Ondoren jakinarazi zuenez, kaleratze gehiago ere egongo ziren, AUTOBAR-Spain multinazionalak Estatu mailan zituen ordezkaritza guztiei eragingo zien (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako DEMAN barne) Enplegua Araupetzeko Espediente bat Madrileko Lan Ministerioan aurkezteko asmoa baitzuten.

### ESPARRU ESTATALA INPOSATU DUTE

Hasieratik, euskal erkidegoko DEMAN-eko langileak ERE-aren kontra azaldu ziren. Alde batetik, enpresaren egoerak ez zuelako horrelako neurririk justifikatzen (kaleratze kolektibo bat!); bestetik, behar izanez gero, kaleratzeak ekiditeko neurri ezberdinak hartzeko aukera ikusten zutelako (borondatezko bajak eta aurre-erretiroak, kasu). Halaber, DEMAN-eko langileei eragiten zieten neurri guztiak Euskal Herrian negoziatu behar zirela ere exigitu zuten. Hau da, DEMAN-eko langileek ERE-a Urnietako egoitza nagusian negoziaztu behar zela defendatu zuten, beraiek hautatutako ordezkari sindikalekin, noski (zentzu honetan, aipatu beharra dago DEMAN enpresa zenaren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ordezkaritzan Gipuzkoako Metaleko Hitzarmena aplikatzen dela, beraien Enpresa Itunak jasotzen dituen hobekuntzekin osatuz).

Haatik, AUTOBAR multinazionalak ERE-aren auzia Madrileko Lan Ministerioara eramatea erabaki zuen, esparru estatalak ugazaben interesen mesedetan jokatuko zuela jakin bazekielako. Begibistakoa zenez, Lan Ministerioak AUTOBAR multinazionalak eskatutako kaleratze kolektiboari men esan zion. Kasu honetan, baina, benetan lotsagarria dena da CCOO eta UGT sindikatuek ere DEMAN-eko langileen kaleratzeei baietza eman izana. Izan ere, CCOO eta UGT sindikatuek DEMAN enpresan ez dute inolako ordezkaritzarik (izatez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako DEMAN enpresan ez dute afiliatu bakar bat ere ez!) Eta hala ere, sindikatu lotsagabe hauek euskal langileen ordezkaritza beregain hartu zuten.

INPOSAKETARIK EZ!!

Autobar

¡¡NO A LOS DESPIDOS!!

### ESKIROLIK EZ!

Gauzak honela, AUTOBAR multinazionalak kaleratzeak gauzatu bezain pronto (eta kontutan eduki behar da adin nagusiko lankide asko kaleratu dituztela, jakinda egungo testuinguru ekonomiko larrian beste enplegu bat aurkitzeko zailtasun galantak izango dituztela), DEMAN-eko langileek, asanbladaren gehiengo zabalaren oniritziarekin, greba mugagabea hasteko erabakia hartu zuten. Ordutik hona, AUTOBAR multinazionalak (Londres hiriko Cityan egoitza duen *Capital Partners* deritzon finantza enpresak kontrolatzen du AUTOBAR, beraz, aurpegirik ez omen duten "Merkatu" famatuak ere tartean ditugu gatazka honetan) greba zapuzteko hainbat trikimailu erabili ditu. Hots, grebalariak mehatxatzeaz gain, multinazionaleko beste enpresa batzuetako langileak eskirol gisa erabili nahi izan ditu (makinak konpondu eta produktuz kargatzeko, bereziki kafe makinetan). Baina ez dute lortu greba zapuztea, Lan Ikuskaritzan egindako salaketei esker, eta, batez ere, AUTOBAR multinazionalaren bezeroak diren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako enpresetatako ELA sindikatuko delegatuek (eta baita LAB-ekoak ere, batipat Araban) egin duten presio informatiboari esker, eskirol penagarri hauen jarduna geldiaraztea lortu baitugu. Hori dela-eta, DEMAN-eko langileek militante sindikal guztien partetik jasotako babesa asko eskertzen dute. Haatik, ez dute ezer eskertu beharrik. Euskal langileria baita esker oneko sentitu behar dena, DEMAN-eko grebalariek ematen ari diren duintasun ikasgaia dela-eta.

**Elkartasun arrazoiak medio, Euskal Herriko ezen langilek ez luke AUTOBAR multinazionaleko produkturik kontsumitu beharko, behintzat enpresa honek DEMAN-eko langileekin mantentzen duen gatazka konpondu artean.**

### NEGOZIAZIOA ORAIN!

Honenbestez, AUTOBAR multinazionalak argi asko izan behar du gatazka hau ez dela amaituko, ez behintzat Madrileko Lan Ministerioak inposatu dituen kaleratzeak bertan behera gelditu artean, nahitaezko kaleratzerik ez baitugu onartuko. Hori dela-eta, DEMAN-eko langile guztiak kontutan izango dituen akordio duin baten aldeko apustua berresten dugu. Izan ere, onartezina da AUTOBAR bezalako multinazional bat Euskal Herria soilik etekin ekonomikoa helburu kontutan izatea; eta, aldiz, kaleratze merkeak lortze aldera, Euskal Herriaz ahaztu eta Estatu mailako negoziazio esparrua lehenestea. Jarrera horrek euskal langileenganako errespetu falta izugarria erakusten baitu. Eta hori ELA sindikatuak ez du inolaz ere onartuko. **Gora DEMAN-eko grebalariak!!!**

### ANTOLATU ETA BORROKATU

**Espainiako indar ultraeskuindarrek inposatu duten Kontra Erreformak Lan Legedia XIX. mendeko garaietara leheneratu duen honetan, DEMAN-eko grebalarien borroka inoiz baino eredugarriagoa suertatzen da. Izan ere, beraien borrokak erakusten du testuinguru latz honetan langilegoaren eskubideak/lanpostuak defendatzeko modu bakarra borroka sindikala dela. Izan ere, ugazaben erasoak ekidin aldera, sindikatu sendo baten babesa eta lankideen arteko elkartasuna ezinbesteko baldintzak baitira. Eutsi gogor!!!**